Astigarragako Udala

**Idazkaritza • Secretaria**
idazkaritza@astigarraga.eus

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra
**Bilera-zenbakia:** 2017ICGO0002
**Eguna:** 2017/03/15
**Ordua:** 10:00 – 10:35
**Tokia:** Alkatetza

**Bertaratuak**

1. Zorione Etxezarraga Ortuondo — EAJ-PNV
2. Nerea Zusberro Alberro — EAJ-PNV
3. Andoni Gartzia Arruabarrena — EHBILDU

**Bertaratu ez direnak**

Juan Martín Arregui Sagües — EAJ-PNV
Mikel Durán Gonzalo — Euskadiko Sozialistak

**Idazkaria**

- Kontxi Urdampilleta Santamaría

**Aztergaiak**

## Esan-eginak eta erabakiak

**1.- 2017ko urtarrilaren 23ko aktaren onarpena.**

Akta aho batez onartu da.

**1.- Aprobación del acta de 23 de enero de 2017.**

El acta se aprueba por unanimidad.

**2.- Kultura saileko jendaurreko ordutegi berria.**

Alkateak kultura eta euskara batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Kultura saileko jendaurreko ordutegi berria onartzea, ostiral arratsaldeak itxiaz eta bertako langileak beren ordutegiak beste astegunetako lanaldia luzatuta osatzea.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**

**2.- Horario nuevo de atención al público del departamento de cultura.**

La alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de cultura y euskara:

*Aprobar el nuevo horario de atención al público del departamento de cultura, cerrando los viernes a la tarde, y que las personas trabajadoras del departamento completen su horario en el resto de la jornada labroal.*

*A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** por unanimidad.*

**3.- 1.2.1 “Norberto Almandoz” 2 HEUko Birpartzelazio proiektua.**

Alkateak Hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehenengoa.-*** *1.2.1 "Norberto Almandoz" HEUaren Kontzertazio Batzordeari adieraztea Arrieta andrearen lokalaren okupazioa eta utzaraztea eraginkorrak izateko Kontzertazio Batzordeak egiaztatu beharko duela hitzarmenean ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela, honako atal hauek azpimarratuz:*

*a) Miren Arantxa Arrieta andreari lokal bat eskaintzea ile-apainketa jarduerarekin jarrai dezan, berralojatze iragankorraren kontzeptupean.*
*b) Lokalaren lekualdaketari dagozkion gastuak bermatzea.*
*c) Behin hirigintza-jarduna amaitzen denean berralojatze-higiezinaren entrega bermatzen duen abala gordailatzea, hitzarmenaren zazpigarren xedapenean ezartzen den bezala.*

***Bigarrena.-*** *1.2.1 "Norberto Almandoz" HEUaren Kontzertazio Batzordeari jakinaraztea Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzeko honako betekizun hauek bete beharko direla:*

*1.- Astigarragako Udalean Birpartzelazio Proiektu zuzendua aurkeztea, ekartzen diren lurzatien azalerak behar bezala adierazten dituena, eta azalera horrek emaitzazko lurzatien baturarekin bat etorri beharko du, baita Gil Soriano familiari emango zaizkion etxebizitza-erabilerako $m^2$-ak ere.*

*2.- Birpartzelazio Proiektu zuzenduarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztea:*

*a.- Egun inskribatuta dauden jabegoen (ekarritako lurzatiak) erregistroko ziurtagiria.*

**3.- Proyecto de Reparcelación de la UEU 1.2.1 “Norberto Almandoz” de la AIU 2.**

La alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

***Primero.-*** *Comunicar a la Junta de Concertación de la U,E,U 1.2.1 “Norberto Almandoz”, que para que sea efectiva la ocupación y desalojo del local de la señora Arrieta, por parte de la Junta de Concertación se deberán de acreditar el cumplimiento de la totalidad de las condiciones establecidas en el convenio, destacándose los siguientes extremos:*

*a) La puesta a disposición de Doña Miren Arantxa Arrieta de un local para que pueda desarrollar la actividad de peluquería, con concepto de realojo transitorio.*
*b) Garantizar los gastos correspondientes al traslado del local.*
*c) El depósito del aval que garantice la entrega del inmueble de realojo, una vez finalizada la actuación urbanística, tal y como se establece en la disposición séptima del convenio.*

***Segundo.-*** *Notificar a la Junta de Concertación de la U,E,U 1.2.1 “Norberto Almandoz” que para la aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación se deberán de cumplir los siguientes requisitos:*

***1.-*** *Se presente en el Ayuntamiento de Astigarraga, un Proyecto de Reparcelación* ***corregido*** *donde se reflejen adecuadamente las superficies de las parcelas aportadas, y que esta superficie coincida con la suma de las parcelas resultantes, así como los m2 construidos de uso de vivienda que se van a entregar a la familia Gil Soriano.*

***2.-*** *Se aporte, junto al proyecto de reparcelación corregido los siguientes documentos:*

*a.- Certificado registral de las propiedades inscritas en la actualidad (parcelas aportadas).*

*b.- Batzordeko idazkariaren ziurtagiria, jabe guztiei Birpartzelazio Proiektuaren hasierako onarpena pertsonalki jakinarazi zaiela eta alegazioak aurkeztu ote diren egiaztatzen duena.*

*c.- Miren Jasone Iguaran Urcolarekin formalizatutako truke-hitzarmena.*

*3.- Zuzendutako birpartzelazio-proiektua teknikoki eta juridikoki baliozkotu beharko dute udal-teknikariek.*

*b.- Certificado de la Secretaria de la Junta que acredite que se ha notificado personalmente a todos los propietarios la aprobación inicial del Proyecto de Reparcelación y si se han presentado alegaciones.*

*c.- Convenio de permuta formalizado con Miren Josone Iguaran Urcola.*

*3.- El proyecto de reparcelación corregido deberá ser validado técnica y jurídicamente por los técnicos municipales.*

***Hirugarrena.-** Kontzertazio Batzordeari adieraztea proiektua Jabetza Erregistroan inskribatu aurretik Astigarragako Udalari 37.537,21 euro ordainduko zaizkiola lagapenaren % 15aren kontzeptupean.*

***Tercero.-** Comunicar a la Junta de Concertación, que con carácter previo a que se inscriba el proyecto en el Registro de la propiedad se abonará al Ayuntamiento de Astigarraga la cantidad de 37.537,21€ en concepto del 15% de cesión .*

***Laugarrena.-** Gil Soriano familiari 1.2.1 "Norberto Almandoz" HEUaren Kontzertazio Batzordearen kudeaketaren inguruan udalak hartutako erabakien berri ematea.*

***Cuarto.-** Dar traslado a la familia Gil Soriano de los acuerdos que adopta este ayuntamiento en relación a las gestiones realizadas por la Junta de Concertación de la UEU- 1.2.1. 'Norberto Almandoz'.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**

*A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** por unanimidad.*

## 4.- Garapen bidean dauden herriei 2016ko diru-laguntzak esleitzea.

Alkateak gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enplegu batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Elkarte hauei dirulaguntza onartzea:*

- *Salvamento marítimo (Siria): 7.727,77 €.*
- *Zaporeak (Siria): 7.727,77 €.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**

## 4.- Adjudicación de subvenciones del 2016 a países en vías de desarrollo.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de servicios sociales, derechos humanos y empleo:

*Aprobar ayuda económica a las siguientes entidades:*

- *Salvamento marítimo (Siria): 7.727,77 €.*
- *Zaporeak (Siria): 7.727,77 €.*

*A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** por unanimidad.*

**5.- Gizarte zerbitzu arloan 2017an garatuko diren jarduketa, proiektu eta programentzako diru-laguntzen oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea.**

Alkateak gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enplegu batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

> ***Lehena***.- *Gizarte zerbitzu arloan 2017. urtean garatuko diren jarduketa, proiektu eta programak laguntzeko oinarriak onartzea.*
>
> ***Bigarrena***.- *Diru-laguntzaren deialdi publikoa egitea.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta galdetu du aztertu ote den lokaletan inbertsioak egiteko diru-laguntzak egiterik dauden, batzordean horretan gelditu baitzen. Udal-idazkariak azaldu du gaia aztertu gabe duela, baina hasiera batean ez duela arazorik ikusten horretarako; hori bai, oinarrietan aldaketa txikiren bat egin beharko dela, eta, alegia, legeak baldintza bereziren bat eskatu dezakeela.

Bertaratuek oinarriak aztertu dituzte, eta baita laguntzaren xedean lokaletan egiten diren inbertsioetarako laguntzak emateko oinarrietan egin beharreko aldaketak ere.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**.

**5.- Aprobar las bases y realizar la convocatoria pública de las ayudas para el año 2017 para el desarrollo de actuaciones, proyectos y programas dentro del ámbito de los servicios sociales.**

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de servicios sociales, derechos humanos y empleo:

> ***Primero***.- *Aprobar las bases de ayudas económicas para el desarrollo de actuaciones, proyectos y programas dentro del ámbito los servicios sociales para el año 2017.*
>
> ***Segundo***.- *Realizar la convocatoria pública de las ayudas económicas.*

Toma la palabra el concejal Andoni y pregunta si se ha analizado la posibilidad de conceder subvenciones para inversiones de locales. La Secretaría municipal le señala que no ha analizado el tema, pero que en principio no ve problemas para ello, siempre que se introduzcan pequeños cambios en las bases, y se cumplan los requisitos exigidos por la ley.

Entre los presentes se analizan las bases, así como las modificaciones que habría que introducir para incluir en el objeto de la subvención las inversiones de locales.

*A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** por unanimidad.*

**6.- 2016-17 ikasturteko eskola kirola bideratzeko Udalaren eta Astigarragako Herri Eskolaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea.**

Alkateak kirolak, gardentasuna eta parte-hartze batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena**.- Astigarragako Herri Eskolarekin, 2016/2017 ikasturteko eskola kirola jarduera aurrera eramaten laguntzeko, lankidetza hitzarmena onartzea.

**6.- Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento y Astigarragako Herri eskola para el deporte escolar 2016-17.**

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación:

> **Primera**.- aprobar el convenio de colaboración con Astigarragako Herri Eskola, en apoyo a la actividad de deporte escolar que lleva a cabo durante el curso 2016/2017.

***Bigarrena**- Alkatea baimentzea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.*

***Segunda**- autorizar a la Alcaldesa para la firma de todos los documentos necesarios.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**

*A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** por unanimidad.*

**7.- 2016-17 ikasturteko igeriketa kanpainarako Udalaren eta Astigarraga Herri Eskolaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea.**

**7.- Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento y Astigarragako Herri Eskola para la campaña de natación curso 2016-17.**

Alkateak kirolak, gardentasuna eta parte-hartze batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación:

***Lehena**.- Astigarragako Herri Eskolarekin, 2016/2017 ikasturteko igeriketa kanpaina eskolarra aurrera eramaten laguntzeko, lankidetza hitzarmena onartzea.*

***Bigarrena**- Alkatea baimentzea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.*

***Primera**.- aprobar el convenio de colaboración con Astigarragako Herri Eskola, en apoyo a la campaña de natación escolar que lleva a cabo durante el curso 2016/2017.*

***Segunda**- autorizar a la Alcaldesa para la firma de todos los documentos necesarios.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**

*A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** por unanimidad.*

**8.- Kirol arloko 2017ko diru-laguntzen oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea.**

**8.- Aprobar las bases y realizar la convocatoria pública de las ayudas para el año 2017 dentro del ámbito de deportes.**

Alkateak kirolak, gardentasuna eta parte-hartze batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación:

***Lehena**.- 2017ko kirolateko diru laguntza deialdia onartzea.*

***Bigarrena.**- Diru laguntzen deialdia publikoa egitea.*

***Primera**.- aprobar la convocatoria de subvenciones del área de deportes del ejercicio 2017.*

***Segunda.-** hacer pública la convocatoria de subvenciones.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**

*A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** por unanimidad.*

**9.- Kiroldegiaren eraberritzearen bigarren faseko obra kontratua aldatzea.**

Alkateak obra eta zerbitzu batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehenengo atala***.- *LKS Ingenieria S. Coop eta Construcciones Moyuak, udal-kiroldegiaren eraberritzearen bigarren faseko obra-kontratua aldatzeko aurkeztutako kontratu-aldaketaren proposamena ontzat ematea.*

***Bigarren atala***.- *Kontratu-aldaketa kontratu agiri berri baten bidez gauzatzea, eta bertan proposameneko ezusteko eta hobekuntzak bakarrik jasotzea.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aho batez **onartu egin da**

**9.- Aprobar la modificación del contrato de la segunda fase de la obra de reforma del polideportivo.**

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

**Primer apartado.-** Aprobar la propuesta de modificación del contrato de la obra de la 2ª fase de renovación del polideportivo municipal, del anterior contrato de obra acordado con LKS Ingenieria S. Coop. Y Construcciones Moyua.

***Segundo apartado.-*** *Resolver la modificación del contrato mediante un nuevo contrato, e incorporar en la misma únicamente los imprevistos y mejoras recogidos en la propuesta de modificación.*

*A continuación se procede a votar el* ***dictamen****, el cual* ***se aprueba*** *por unanimidad.*

**10.- Obra baimen eskaera onartzea: Ergobia Ibilbidea A.2/EL-6 eremua.**

Alkateak hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*Lehen atala.- Eskaturiko obra baimena baldintzatua ematea.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du berak kontra bozkatuko direla, udalak etxebizitzak hartzeko aukera zuen arren, ez direlako hartuko.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **onartu egin da** aldeko 2 botoekin (EAJ-PNV taldeko kideak) eta EHBildu taldeko kidearen kontrako botoarekin

**10.- Aprobar la licencia de obras: Ergobia Ibilbidea área A.2/EL-6.**

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

*Primero.- Conceder condicionada la licencia de obra solicitada.*

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que el va a votar en contra, ya que el Ayuntamiento tenía opción de adquirir viviendas, y no lo va a hacer.

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** con dos votos a favor (de los miembros de EAJ-PNV) y el voto en contra del miembro de EHBildu.

**11.- Informazio, galdera eta eskariak**

Udal-idazkariak bertaratuei azaldu die Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritzak 2016ko abenduaren 20ko Gobernu Batzordearen erabakiaren aurka (hain zuzen, memoria historikoaren inguruko beka-deialdiaren oinarrien onarpenaren aurka) auzi-

**11.- Información, ruegos y preguntas**

La secretaria municipal informa de que la Delegación del Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha interpuesto un recurso contra el acuerdo de la Comisión de Gobierno de 20 de diciembre de 2016 por el que se establecen las “bases reguladoreas de la

errekurtsoa aurkeztu duela.

Azaldu du oraindik ezin dela jakin zergatik ezarri duen, baina dirudiela euskararengatik izan daitekeela.

Bertaratuei gogorazi die udala bere eskubideak defendatzera behartuta dagoenez errekurtsoan agertzea ezinbestekoa dela. Eta proposatu die gaia Egia Kolektiboko abokatuen esku uztea – diru-laguntzen inguruko beste auzi-errekurtso batzuk bereiak eraman dituztelako – eta horiek ezin badute, udal aholkulariaren esku.

concesión de la beca para el estudio y recuperación de la memoria historica”.

Explica que todavía no se puede saber la razón de la interposición, pero que probablemente sea por el euskara.

También les ha recordado que el Ayuntamiento tiene el deber de defender sus derechos, por lo que es imprescindible personarse en el procedimiento, y ha propuesto encomendar la defensa a los abogados de Egia Kolectiboa – ya que han llevado la defensa de otras impugnacioes de ayudas – y si ellos no pueden, dejarlo en manos de la asesora jurídica.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2017ko martxoaren 15ean

**Kontxi Urdampilleta Santamaría**
**Ordezko idazkaria**